



BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

KOMUNIKAZIO BIDEAK:

Bezeroen eta gure arteko komunikazioa errazteko, hainbat baliabide sortuko ditugu, lan hori errazteko. Hasteko, **Googlen** jabetxearen hainbat datu jarriko ditugu, gure bezeroek jabetxearen informazioa edukitzeko. Adibidez: Google Maps-ren bitartez, gure bezeroei jabetxearen kokapena zehazki agertuko zaie, jabetxearen telefono zenbakia ageriko zaie gurekin harremanetan jar daitezen, hala nola; eskaera bat egiteko eta gure menuaren prezioak ikusgarri egoteko.



Hortaz, **jabetxearen aplikazio** bat sortuko dugu ere, bezeroekin komunikazioa errazteko. Aplikazio honetan, bezeroek eskaintzak lortu ahal izango dituzte. Zenbat eta diru gehiago gastatu gure jabetxean, eskaintzak ehuneko handiagokoak izango dira. Aplikazio honetan ere, bezeroak iritziak eta aipamenak egiteko gaitasuna izango dute eta horrela ikus dezakegu gure lana ondo egiten ari garen ala ez, eta gure produktuak bezeroen gustokoak diren ala ez.



Bestalde, perfilak izango ditugu **sare-sozial** nagusietan eta han hainbat gauza igoko ditugu bezeroen informaziorako. Adibidez: jabetxearen berriak sare-sozialetara igoko ditugu, 15€ egungo menua ikusgarri egongo da, jabetxearen aplikazioaren oferta berriak igoko ditugu eta hainbat zozketa ere egingo genituzke. Zozketen sariak bi izango ziren: jabetxearen deskontu bereziak eta 10 eta 20 euroko bonoak, jabetxean bertan gastatzeko.

BANAKETA BIDEAK:

Hasteko, gure bezeroek, gure produktuak kontsumitzeko modua **gure lokalera joatea** izango da, gure produktuen kontsumo handiena gure lokaletan izango litzatekelako, gure jabetxeko berezitasuna ez delako produktuak, baizik eta, jabetxea bera, daukagun teknologiaren aurrerapenagatik. Ondoren, gure produktuak eskuratzeko beste ,odu bat eskaera egin eta produktuak banatzaileen bitartez jasotzea izango da. Bai sare sozialetan eta Googlen gure telefono-zenbakia eskuragarri egongo da eta baita gure aplikazioaren bidez eskariak ere egin ahal izango dituzte eta gure **banatzaileak**, bezeroak eskatutako produktuak dagozkien tokietara eramango dituzte.